

# Demokrazia eta demokraziak

Joxe AZURMENDI

Nahitaez demokrata izan behar da orain. Demokrata ez denak, zer egin? Txaketa aldatzea ere ez da uste zen bezain erraza: txaketa zaharra haragiari itsatsita bait zegoen.

Txaketari izena aldatzea da errazena. Aski da lumazo bat eta ongi kolaboratzen duen prentsa manukor bat mendean, oso mendean, eta edozein diktadura gaueetik goizera demokrazia organiko bihurtzen da. Hori, adibidez. Beste lumazo bat, eta demokrazia organikoa asoziaziozko demokrazia bihurtzen da. Paper guti kostatzen da hori dena.

Ez litzateke hala izango, demokrazia krisian ez balego. Demokrazia hitzaz jolasean nolanahi ibiltzerik ez balego. Aspaldi hasi ziren jolasak eta krisiak. Hasi XIX. mendean, eta lehen Mundu Gerraren ondorenean batez ere, eskuinetik nahiz ezkerretik, demokraziak burlatzen ahalegiten zuen jendeak. «Burgesen eta plutokraten aginpidea al da demokrazia?», ari ziren faxistak garraisika. Sekulako demokrazia ekarri ziguten...

Beste batzuek, egiako demokrazia inauguratzeko. Proletargoaren Dikta-

dura eraiki nahi zuten. Eta eraiki zuten, eraiki. Sekulako demokrazia...

Funtsean Alderdien gorrotoak gidatzen zituen «demokraziok». Herri Demokraziak eta demokrazia organikoak. Eta halakoxeak dira, izan ere: Alderdi pluralismorik gabe, oposizio agiri gabe, prentsa librerik gabe, Alderdi politiko eta interes organizazio berezien autonomia gabe (sindikatoena, adibidez), poderio politiko eta ekonomikoen batasun osoaz, eta abar.

Lehen ilun zegoen, demokrazia demokraziarik ote zen. Eta bigarren demokrazia mota hura sortu zenean, berri ere zerbait ilunago gelditu zen, zer den demokrazia. Demokraziaren izen gehiago eta izan gutiago.

Jatorrizko demokrazia motak Alderdi eta interes talde berezi eta instanzia sozial asko du. Bigarren demokrazia motak Alderdi bat bakarrik eta aparato guziz hierarkikoa, industriatik hasi eta kiroletaraino, dena egitamu orokor batetan antolatzen duena.

Bigarren Mundu Gerraren ondotik hirugarren demokrazia mota bat zabaldu da: Militar Demokrazia edo zesarokrazia. Eta demokrazia ideiaaren eklipse oso bat ez badadukagu iadanik, urrutik ez gabiltza.

Hirugarren Demokrazia mota honek Alderdirik bat ere ez du: «mogimendu» batetan oinarritzen da, antza. Zinez, Armadak eusten dio, ez bestek.

40 Estatutatik gora dira munduan Militar Gobernu batez: Chilen eta Perun, Bolivian eta Argentinan, Indonesian nahiz Libian, Ugandan, Hego Korean... Israel eta Kuba bezalakoak aipatu gabe: militarrek eta politikoek noiznahi alkia truka lezaketen tokiak.

Hirugarren Munduan, batez ere, hirugarren demokrazia tipo hau ari dira entseiatzen. Zesarokrazia. Baina ez zaigu esaten, ez, sistema politiko hau besterik ezin duenaren aterabidea denik. Bai zera. Beste sistema guzien superazioa omen da. Sortaldeko nahiz sartaldeko sistema guzien superazioa.

Juan Domingo Perón Latin Amerikan eta Sukarno Asian izan dira «hiru-



garren posizioaren» profeta haundiak. Lehenago, Kemal Ataturk eta beste halako batzuk daude. Luis Felipe eta Napoleon III. na, orduan asmatu bait zen «zesarismo» izena, izenik ez duena ere nolabait izentatzeko. Han urrutik, Zesar agiri da. Historia zaharra, hortokoz.

Orain agintzen dute, hemengoa «demokrazia espainola» izango dela. Eta adjetibo bat gehiagok demokrazia gutiago utziko duela, susmoa sortzen da berriz ere.

Adjetibo gehiegi ari gara demokraziari asmatzen. Eta Jainkoak daki, txaketa honi zenbat izen berri emango zaion oraindik: txaketa erantzi eta demokrazi-demokrazia, kafe-kafea, makutsetan gelditu arte. Adjetibo gutiago eta sustantibo gehiago.

